

Osoko Bilkurak 2024ko otsailaren 29an hartutako erabakiaren laburpena. Akordio horren bidez, Kultura Departamenduak norgehiagoka arau bidez, kudeatutako programen kontura dirulaguntzak emateko 2024ko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu ziren.

OÑATIKO UDALA

Laburpena (GAOn argitaratzeko)

2024ko deialdia, Kultura Sailak norgehiagoka arau bidez kudeatutako programen kontura dirulaguntzak emateko.

Kultura Batzordeak proposatuta, Osoko bilkurak, 2024ko otsailaren 29an egindako bileran honako hau erabaki zuen:

.-Lehenengoa: Onartzea, dirulaguntza lerroen oinarri arautzaile orokorrak, baita horietako bakoitzaren oinarri zehatzak ere:

A lerroa: Kultur proiektuak eta programak garatzeko dirulaguntzak.

B lerroa: Kultur sormen lanak gauzatzeko dirulaguntzak.

.- Bigarrena: Onartzea, aipatutako dirulaguntzen 2024ko deialdia, guztira 94.600 euroko gastua baimentzea eta dirulaguntza hauek finantzatzeko udal aurrekontuen **1.0800.480.334.00.01.2024 (355)** " diru ataletik eta bere lotespen mailatik ondorengo eran :

A lerroa: Kultur programak eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak: guztira lerro honetarako 77.000 euroko gastua baimentzen da.

B lerroa: kultur sormen lanak finantzatzeko dirulaguntzak: guztira lerro honetarako 17.600 euroko gastua baimentzen da.

.- Hirugarrena: Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik aurrera kontatzen hasita, hilabeteko epea izango dute eskatzaileek eskaerak egiteko.

.-Laugarrena: Erabaki honen bidez onartutako oinarriek eragina izango dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. eta 65. artikuluetan aurreikusitako epea igarotakoan. Indarrean egongo dira harik eta udalbatzak berariaz aldatu edo indargabetu arte.

.- Bosgarrena: Dirulaguntzak zuritzeko azken egun izango da:

A lerroa: azaroak 29, ostirala.

B lerroa: azaroak 29, ostirala.

Erabaki hau behin betiko da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori

eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Oñatin, 2024ko otsailaren 29an.-Izaro Elorza Arregui, Alkatea.